tuak ikertzeko sail bati buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.

8. Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari ikerketa, garapen zientifiko eta tekniko eta berrikuntza alorrean egin beharreko transferentziaren funtsak, 86,8 milioi eurokoak, 2009ko aurrekontuetan sartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.

***

Aralar, relativa a una división para la investigación de delitos contra el medio ambiente.

8. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a la incorporación de los fondos de la transferencia de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de investigación, desarrollo científico y técnico e innovación, por importe de 86,8 millones de euros, a los presupuestos de 2009.

***

# ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK
# ORGANIZACIÓN Y RECURSOS HUMANOS

***Oposizio-lehiaketarako deialdia, Eusko Legebiltzarrean ekonomia gaietako teknikari bat txanda irekian betetzeko***
(09/25.01.00.0006)

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak 2009ko azaroaren 10eko bileran hartutako erabakia betetzeko, agintzen dut oposizio-lehiaketarako ondorengo deialdia argitara dadila.

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak
Arantza Quiroga Cia

**OINARRIAK, EUSKO LEGEBILTZARREKO PLANTILLAN SARTUTAKO EKONOMIA GAIETAKO TEKNIKARI PLAZA BETEGABE BAT TXANDA IREKIAN ETA OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAZ BETETZEKO**

**1. Deialdiaren helburua**

1.1 Deialdi honen helburua da ondoren adierazten den plaza txanda irekian betetzea:

Lanpostuaren izena: ekonomia gaietako teknikaria.

Zein arlori atxikia: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza.

Betetzeko plaza-kopurua: bat.

Betetzeko sistema: oposizio-lehiaketa.

Funtzionario-kidegoa: Goi Mailako Teknikariak.

Eskatutako titulazioa: Goi-mailako unibertsitate-titulazioa.

Euskarako hizkuntza-eskakizuna: 3, nahitaezkoa.

***Convocatoria de concurso-oposición para proveer una plaza de técnico de asuntos económicos al servicio del Parlamento Vasco, en régimen de turno libre***
(09/25.01.00.0006)

En ejecución del acuerdo de la Mesa del Parlamento Vasco de 10 de noviembre de 2009, se ordena la publicación de la siguiente convocatoria de concurso-oposición.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

**BASES PARA LA PROVISIÓN DE UNA PLAZA VACANTE DE TÉCNICO DE ASUNTOS ECONÓMICOS, INTEGRADA EN LA PLANTILLA DEL PARLAMENTO VASCO, MEDIANTE TURNO LIBRE Y POR EL SISTEMA DE CONCURSO-OPOSICIÓN**

**1. Objeto de la convocatoria**

1.1 El objeto de la presente convocatoria es la provisión, mediante turno libre, de la plaza vacante que se indica a continuación:

Denominación del puesto de trabajo: técnico de asuntos económicos.

Adscripción: Dirección de Servicios Generales.

Número de vacantes: una.

Sistema de provisión: concurso-oposición.

Cuerpo de funcionarios: Técnico Superior.

Titulación exigida: Titulación Universitaria Superior.

Perfil lingüístico de euskera: 3, preceptivo.

Lanpostuaren eginkizun nagusiak: 2. eranskinean jarritakoak.

1.2. Ahalmen-urrituentzako gordetako plazaren bat edo batzuk bete gabe geratuz gero, gehitu egingo lituzkete, hizkuntza-eskakizun berekin, deialdi bereko txanda irekian bete beharreko plazak.

1.3. Aukera-berdintasuna lortzeko asmoan aurrera egitearren, eta ahalmen-urritasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duen 2271/2004 Errege Dekretuko 3.2 artikuluak ezarritakoari jarraituz, baldin eta ahalmen-urrituentzako gordetako kupoaren aldetik aurkeztutako lehiatzaile ahalmen-urrituetakoren batek dagozkion ariketak gainditzen baditu baina plazarik lortzen ez badu eta, halaber, txanda libreko beste lehiatzaile batzuek baino puntuazio handiagoa ateratzen badu, txanda irekiko zerrendan sartua izango da puntuazio-ordenaren arabera.

## 2. Plaza-deialdian sartzeko baldintzak

2.1. Deialdi honetan arauturiko prozesuan parte hartu ahal izateko, deialdiko plazak lortu nahi dituzten pertsonek ondoren zerrendatzen diren baldintzak beteta eduki beharko dituzte beranduen ere 3.1 oinarrian eskabideak aurkezteko aurreikusten den epearen azken egunean, eta, kasua hori bada, beteta eduki esleitzen zaien plazaz jabetu arte.

2.2. Honako hauek dira deialdiko plazetara lehiatzeko baldintzak:

a) Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo, bestela, Europar Batasunak egindako eta Espainiak sinatutako nazioarteko itunen ondorioz, Europar Batasunaren Itunean zehaztutako eran langileen joan-etorrirako askatasuna duen beste estatu bateko nazionalitatea izatea.

b) Hamazortzi urteak beterik izatea eta nahitaezko erretirorako adinera iritsi gabe egotea.

c) 1. oinarrian (deialdiaren helburua) eskatzen den titulua izatea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, edo titulu hori lortzeko eskubideak ordaindurik edukitzea. Titulu akademikoak atzerrian lortuak badira, tituluokin batera entregatu beharko da horiek onartzen dituen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren agindua, edo homologatuta daudela egiaztatzen duen agiria.

Funciones principales del puesto: las establecidas en el anexo 2.

1.2. En caso de que hubiera plazas reservadas a personas discapacitadas que resultaran desiertas, acrecerían, conservando las mismas exigencias lingüísticas, las convocadas en turno libre en la misma convocatoria.

1.3. Con el fin de avanzar en el propósito de conseguir la igualdad de oportunidades y conforme a lo establecido en el artículo 3.2 del Real Decreto 2271/2004, por el que se regula el acceso al empleo público y la provisión de puestos de trabajo de las personas con discapacidad, en el supuesto de que alguno de los aspirantes con discapacidad que se haya presentado por el cupo de reserva de personas con discapacidad superase los ejercicios correspondientes, pero no obtuviera plaza y su puntuación fuera superior a la obtenida por otros aspirantes del turno libre, será incluido por su orden de puntuación en la lista del turno libre.

## 2. Requisitos para optar a las plazas convocadas

2.1. Para participar en el proceso regulado en la presente convocatoria, quienes opten a las plazas convocadas habrán de reunir los requisitos que a continuación se enumeran a más tardar el último día del plazo para la presentación de solicitudes previsto en la base 3.1, y deberán mantener su cumplimiento hasta la toma de posesión de la plaza que, en su caso, les sea adjudicada.

2.2. Son condiciones para optar a las plazas convocadas:

a) Tener la nacionalidad española o la de alguno de los estados miembros de la Unión Europea, o de aquellos estados en los que, en virtud de tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y suscritos por España, sea de aplicación la libre circulación de trabajadores, en los términos en que se haya definido en el Tratado de la Unión Europea.

b) Tener cumplidos dieciocho años de edad y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.

c) Poseer la titulación exigida en la base 1 (objeto de la convocatoria), expedida por el Ministerio de Educación y Ciencia, o haber satisfecho los derechos para su expedición. Las titulaciones académicas obtenidas en el extranjero deberán estar acompañadas de la orden del Ministerio de Educación y Ciencia de reconocimiento de las mismas, o de la credencial que acredite su homologación.

d) Deialdiko plazei dagozkien lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzeko beharrezkoa den gaitasun psikofisikoa edukitzea.

e) Lanbidean aritzeko edo funtzio publikoetarako ezgaiturik ez egotea, eta diziplina-espediente bidez Administrazio publikoaren zerbitzutik kendu gabeak izatea. Atzerritarra izanez gero, jatorriko herrialdean funtzio publikoan sartzea eragotziko liokeen diziplina-zigor edo kondena penalik ez edukitzea.

f) Administrazio publikoetako langileen bateraezintasunei buruz indarrean dagoen legedian aurreikusitako inolako ezgaitasun edo bateraezintasunik ez izatea. Hala ere, dagoeneko kargu publikoren bat edo jarduera pribatu bateraezinen bat dutenak lege-arau horietan aipatzen den aukeratzeko eskubideaz baliatu ahal izango dira.

2.3. Ahalmen-urritasunen bat duten pertsonak gainerako lehiatzaileen baldintza beretan onartuko dira hautaketa-prozesurako, betiere lanpostuaren eginkizunak betetzeko beharrezko gaitasun psikofisikoa izanez gero, 2.2.d puntuan aipatutako eta 2. eranskinean zehaztutako gaitasuna, hain zuzen.

2.4. Ahalmen-urrituentzat gordetako lanpostuetara lehiatu ahal izateko, eta 2.3 oinarrian ezarritako baldintzak betetzeari utzi gabe, lehiatzaileek ahalmen-urritasuna onarturik eduki beharko dute, % 33ko edo gehiagoko ahalmen-urritasuna izanik. Ahalmen-urritasun hori administrazio-organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

### 3. Eskabideak aurkeztea

3.1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzan (Becerro de Bengoa kalea, z.g., Vitoria-Gasteiz) aurkeztu beharko dira, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, eta hamabost egun baliodunekoepean, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskabideekin batera nortasun-agiri nazionalaren fotokopia aurkeztu beharko da. Halaber, nahitaez egiaztatu egin beharko da hautaketa-prozesuan parte hartzeko bete beharreko baldintza guzti-guztiak betetzen direla, are gaitasunen azterketari dagokion gaitasun psikofisikoa ere, 2. eranskinean ageri dena (gaitasun horiek

d) Poseer la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño de las funciones de los puestos de trabajo a los que corresponden las plazas convocadas.

e) No haber sido objeto de inhabilitación para el ejercicio profesional o el desempeño de funciones públicas, ni de separación mediante expediente disciplinario del servicio de la Administración pública. En caso de no ser nacional, no haber sido objeto de sanción disciplinaria o condena penal que impida el acceso a la función pública en el país de origen.

f) No incurrir en ninguna causa legal de incapacidad o incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la legislación vigente en materia de incompatibilidades del personal al servicio de las administraciones públicas, sin perjuicio, para quienes ocupan ya un cargo público o una actividad privada incompatible, de ejercitar el derecho de opción a que se refieren las citadas normas legales.

2.3. Las personas afectadas por alguna discapacidad serán admitidas al proceso de selección en igualdad de condiciones con el resto de aspirantes, siempre que reúnan la aptitud psicofísica necesaria para el desempeño de las funciones del puesto, mencionada en el punto 2.2.d y especificada en el anexo 2.

2.4. Para concurrir a las plazas que se reservan a personal discapacitado, y sin perjuicio del cumplimiento de los requisitos establecidos en la base 2.3, las aspirantes y los aspirantes deberán tener reconocida tal condición, con discapacidad de grado igual o superior al 33 %, que se acreditará mediante certificación expedida por el órgano administrativo competente.

### 3. Presentación de las solicitudes

3.1. Las solicitudes para tomar parte en el proceso selectivo deberán presentarse en la Dirección de Organización y Recursos Humanos, calle Becerro de Bengoa, s/n, Vitoria-Gasteiz (edificio administrativo), en horario de 9 a 14 horas, de lunes a viernes, en el plazo de quince días hábiles, contado desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

Las solicitudes deberán acompañarse de fotocopia simple del documento nacional de identidad y se hará constar necesariamente la concurrencia de todas y cada una de las condiciones exigidas para participar en el proceso selectivo, incluida la aptitud psicofísica correspondiente al análisis de competencias, que aparece en el

zehazteko orduan, Eusko Legebiltzarrak Gokai fundazioaren aholkularitza izan du).

3.2. Eskabideak oinarri hauetako 3. eranskinean azaltzen den eredu normalizatuaren arabera egingo dira. Lehiatzaileek eskabide-eredu hori bi modutara eskuratu ahal izango dute: Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzan edo Eusko Legebiltzarreko web-orriaren bidez (www.parlamento.euskadi.net), hain zuzen ere, menuko "zerbitzuak" ataleko "oposizioak" azpiatalean. Eskabideak, era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan xedatutakoaren arabera ere aurkeztu ahal izango dira.

3.3. Posta-bulegoetan aurkezturiko eskabideek Posta Zerbitzuen Araudiko 205.3 artikuluan ezarritako prozedura bete beharko dute: eskabideak gutun-azal irekian aurkeztuko dira, enplegatuak haietan data-zigilua jar dezan, goian ezkerraldean. Argi azaldu beharko dute bulegoaren izenak eta datak.

3.4 Lehiaketarako zehaztutako merituak, kasu guztietan, eskabidearekin batera adierazi beharko dira eta behar bezala frogatu.

Hizkuntza-eskakizuna –eskatu behar den kasuetan– eta merituak egiaztatzeari dagokionez, jatorrizko dokumentuak edo dokumentu horien fotokopia konpultsatuak aurkeztuko dira. Ez da inola ere baloratuko adierazi gabeko meriturik. Gainera, baloratu ahal izateko, aurreko lerroaldean ezarritako eran eta oinarri hauetan agindutako moduan frogatu beharko dira adierazitako merituak.

3.5. Oposizioko ariketaren bat egiteko denborazko edo baliabidezko egokitzapenik behar izanez gero, zehazki zer-nolako egokitzapenak behar dituzten adierazi beharko dute eskabide-orrian bertan.

3.6. Egin beharko liratekeen jakinarazpenetarako, eskabide-orrian adierazten dena hartuko da helbidetzat, baldin eta geroago espresuki eta modu frogagarrian besteren bat adierazten ez bazaio deialdia egin duen agintaritzari. Alabaina, Eusko Legebiltzarreko langileen kasuan, ez badute eragozpenik, lantokikoa hartu ahal izango da helbidetzat.

**4. Lehiatzaileak onartzea**

4.1. Onartuen zerrendan agertzeko eta hautaprobetan parte hartu ahal izateko, aski izango da lehiatzaileek eskabidean adieraztea 2.2 oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

anexo 2, para cuya elaboración se ha contado con el asesoramiento de la fundación Gokai.

3.2. Las solicitudes se ajustarán al modelo normalizado de instancia que figura en el anexo 3 de las presentes bases, que será facilitado en la Dirección de Organización y Recursos Humanos, o se podrá obtener a través de la página web del Parlamento Vasco www.parlamento.euskadi.net en el apartado "servicios", subapartado "oposiciones" del menú. También podrán presentarse en la forma señalada en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

3.3. Las instancias presentadas en las oficinas de correos deberán cumplir con el procedimiento establecido en el artículo 205.3 del Reglamento de los Servicios de Correos. A tal efecto, las instancias se presentarán en sobre abierto para que se estampe el sello de fechas en la parte superior izquierda de las mismas, debiendo figurar con claridad el nombre de la oficina y la fecha.

3.4. Los méritos establecidos para la fase de concurso deberán, en todos los casos, alegarse y justificarse debidamente con la solicitud.

La justificación del perfil lingüístico exigible, en su caso, y la de los méritos alegados se llevará a cabo mediante los documentos originales que los acrediten o fotocopia compulsada de los mismos. En ningún caso podrán valorarse méritos que no hayan sido alegados y justificados en la forma que se establece en el párrafo anterior y en las prescripciones contenidas en las presentes bases.

3.5. En el caso de necesitar adaptaciones de tiempo o medios para la realización de algún ejercicio de la fase de oposición, habrán de expresarlo en la solicitud, con indicación de las concretas que se requieran.

3.6. A los efectos de posibles notificaciones, se entenderá como domicilio el señalado en la instancia, salvo que con posterioridad se comunique otro distinto de forma expresa y fehaciente a la autoridad convocante. No obstante, para el personal del Parlamento Vasco, si no manifiesta objeción, se podrá entender como tal el puesto de trabajo.

**4. Admisión de aspirantes**

4.1. Para aparecer en la lista de personas admitidas y tomar parte en las pruebas selectivas bastará con manifestar en la solicitud que se reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos en la base 2.2.

4.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak onetsi egingo du onartu diren eta bazter utzi diren lehiatzaileen behin-behineko zerrenda, eta zerrenda hori argitara emango da bai Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean, bai Eusko Legebiltzarreko iragarki-taulan eta bai web-orriaren bidez (www.parlamento.euskadi.net). Zerrenda horretan adierazita egongo da bazterturiko lehiatzaile bakoitza, halakorik bada, kanpoan zergatik utzi den. Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, deialdiko plazak lortu nahi dituzten pertsonek hamar eguneko epea izango dute bazterketa eragin duen akatsa edo hutsa zuzentzeko eta zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko, hala baitago aurreikusita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira. Erreklamaziorik aurkezten baldin bada, onartutako eta baztertutako lehiatzaileen behin behineko zerrenda behin betiko egiten duen erabakian onartuko edo baztertuko dira, eta erabaki hori Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.3. Egitatezko okerrak prozedurako edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz zein alderen batek eskaturik.

## 5. Epaimahaia

5.1. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak izendatuko ditu epaimahaikideak. Epaimahaia era honetara osatuko da:

- Mahaiko kide bat, epaimahaiko buru izango dena.
- Kontu-hartzailea, edo berak hautatzen duen ordezkaria.
- Deialdiko plazen kidego bereko edo goragoko kidego bateko pertsona bat, Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak izendatua.
- Kanpoko aholkulari bat, gai honetan espezialista.
- Goi Mailako Teknikarien Kidegoko pertsona bat, langileen ordezkaritza-organoak kidego horretako pertsonen artetik izendatua.
- HAEEk izendatutako pertsona bat.
- Legebiltzarreko Legelarien Kidegoko pertsona bat, idazkari-lanak egingo dituena,

4.2. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la Mesa del Parlamento Vasco aprobará la relación provisional de personas admitidas y excluidas, que se hará pública en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco, en el tablón de anuncios del Parlamento Vasco y a través de la página web www.parlamento.euskadi.net. Dicha relación expresará, con referencia a cada aspirante, las causas que, en su caso, hayan motivado su exclusión. Desde el día siguiente a la publicación en el Boletín Oficial, quienes opten a las plazas convocadas dispondrán de un plazo de diez días para subsanar los defectos u omisiones que hayan motivado la exclusión o para presentar reclamaciones contra la lista conforme a lo previsto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las listas provisionales se entenderán elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones. Las reclamaciones presentadas serán aceptadas o rechazadas en el acuerdo por el que se eleve a definitiva la relación provisional de personas admitidas y excluidas, que se hará público igualmente en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

4.3. Los errores de hecho podrán subsanarse en cualquier momento del procedimiento, de oficio o a instancia de parte.

## 5. Tribunal

5.1. La Mesa del Parlamento Vasco nombrará a las personas que integrarán el tribunal calificador, que estará constituido de la siguiente manera:

- La persona que presidirá el tribunal, que será miembro de la Mesa.
- El interventor general, o persona en quien delegue.
- Una persona perteneciente al mismo cuerpo o superior al de las plazas convocadas, designada por la Dirección de Organización y Recursos Humanos.
- Una asesora o asesor externo especialista en la materia.
- Una persona del Cuerpo de Técnicos Superiores, designada por el órgano de representación del personal de entre quienes pertenezcan a dicho cuerpo.
- Una persona designada por el IVAP.
- Una persona del Cuerpo de Letrados de la Cámara, que ejercerá la secretaría,

Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak izendatua.

Onartu diren eta bazter utzi diren lehiatzaileen zerrendarekin batera argitaratuko da epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izendapena.

Epaimahaia osatzen duten kideak izendatzerakoan langileen ordezkaritza-organorik ez baldin badago, deialdiko lanpostuen kidego bereko pertsona bat izendatuko da zozketaz.

5.2. Izendapenak baliozkoa izaten jarraituko du, izendapena egiteko baldintzak epaimahaiko kideak izendatu ondoren aldatu arren. Hori horrela izanik ere, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak izendapen hori ezeztatu eta kide horren ordez beste bat izendatu ahal izango du, baldin eta egoera aztertuta izendapena bere horretan uzteak epaimahaiaren ohiko funtzionamenduari kalte egiten badio. Ezeztatze eta ordezkatze horiek Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

5.3. Epaimahaiak, deialdiko oinarrietan aurreikusi gabeko gaietan, hautaketa-prozesua burutu ahal izateko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izango ditu, bai eta oinarrien interpretazioari eta aplikazioari dagozkien arazo guztiak ebatzi ere.

5.4. Epaimahaiaren erabakiak, oinarri hauetan aurreikusten direnez landakoak, argitara emango dira bai Eusko Legebiltzarreko iragarki-oholean bai web-orriaren bidez (www.parlamento.euskadi.net).

5.5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 20.4.b artikuluak ezarritakoa betez, epaimahaian gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua egongo da.

5.6. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bilkuran direnen boto-gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiko buruaren botoak ebatziko du.

5.7. Baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28 eta 29. artikuluetan aurreikusitakorik gertatzen bada, epaimahaia osatzen duten kideek uko egin beharko diote epaimahaian egoteari, Eusko Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziz, eta deialdiko plazak lortu nahi dituzten pertsonek ezetsi egin ahal izango dituzte.

designada por la Dirección de Organización y Recursos Humanos.

El nombramiento de quienes componen el tribunal como titulares y suplentes se hará público junto con la relación de personas admitidas y excluidas.

Si en el momento de designación de las personas integrantes del tribunal no existe órgano de representación del personal, se procederá a designar a una persona, por sorteo, de entre quienes pertenezcan al mismo cuerpo que el de las plazas convocadas.

5.2. La modificación de las condiciones en virtud de las cuales se haya producido el nombramiento de quienes componen el tribunal, sobrevenida con posterioridad al mismo, no alterará su validez. Ello no obstante, cuando en atención a las circunstancias concurrentes la conservación del nombramiento pueda menoscabar el funcionamiento normal del tribunal, la Mesa del Parlamento Vasco podrá proceder a su revocación y a la consiguiente sustitución de quienes se trate, que se harán públicas en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

5.3. El tribunal podrá adoptar las medidas que estime precisas para el desarrollo del proceso selectivo en todo lo no previsto en las bases de la convocatoria, así como resolver cuantas cuestiones se susciten relativas a la interpretación y aplicación de las mismas.

5.4. La publicación de los acuerdos del tribunal, en lo no previsto en estas bases, se llevará a cabo en el tablón de anuncios del Parlamento Vasco y a través de la página web www.parlamento.euskadi.net.

5.5. En la composición del tribunal calificador se observará una representación equilibrada de mujeres y hombres, en cumplimiento de lo señalado en el artículo 20.4.b de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

5.6. Todas las personas que integren el tribunal tendrán voz y voto. Las decisiones del tribunal se adoptarán por mayoría de votos de las personas presentes. En caso de empate, resolverá el voto de quien ocupe la presidencia.

5.7. Cuando concurran las circunstancias previstas en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, las personas que integren el tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la Mesa del Parlamento Vasco, y quienes opten a las plazas convocadas podrán recusarlas.

5.8. Epaimahaiak ez du eratzerik ez lanean aritzerik izango baldin eta bilkuran ez badira lehendakari- eta idazkari-lanetan ari diren pertsonak eta gutxienez kideen erdiak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 26. artikuluan adierazitakoari lotuz.

5.9. Epaimahaiak, hautaprobetako edozeinetarako, beharrezko iruditzen zaizkion aholkulariak eskatu ahal izango ditu. Aholkulari horiek kasuan kasuko espezialitatean laguntza teknikoa ematera mugatuko dira.

5.10. Martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko 19.1 artikuluan adierazitakoaz baliatuz, epaimahaiak ahalmena izango du deialdiko plazak lortu nahi dituzten eta ahalmen-urritasuna duten pertsonek eskatzen dituzten denborazko eta baliabidezko egokitzapenak egiteko.

5.11. Epaimahaiak ezingo ditu hautatutzat jo deialdiko plaza-kopurua baino lehiatzaile gehiago. Muga hori hausten duten proposamenak erabat baliogabeak izango dira.

5.12. Epaimahaiaren ebazpenak lotesleak izango dira izendapenak egiteko eskumena duen organoarentzat. Hark, alabaina, ebazpenok berriz aztertzeko aukera edukiko du, administrazio-prozedurako arauei jarraituz.

5.13. Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Eusko Legebiltzarrean izango du egoitza.

### 6. Hautatzeko prozedura

6.1. Lehiatzaileen hautaketa oposizio-lehiaketa bidez egingo da. Lehiaketa-aldia ez da kanporagarria izango, eta lehiatzaileek adierazi eta egiaztatu dituzten merituak baloratuko dira aldi horretan, deialdi honetako 1. eranskinean ezarritako baremoari lotuz. Oposizio-aldian, berriz, eranskin horretan zehazten diren ariketak egingo dira.

6.2. Lehenengo ariketa egiteko eguna, ordua eta tokia Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, ariketa-eguna baino bost egun lehenago gutxienez ere. Argitaratu ordez, lehiatzaileei zuzenean eta modu frogagarrian jakinarazi ahal izango zaie, aurreko epe berean. Hurrengo ariketak Eusko Legebiltzarreko iragarki-oholean eta Interneteko www.parlamento.euskadi.net helbidean iragarriko dira, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenagotik bakoitza.

6.3. Deialdiko plazak lortu nahi dituzten pertsonei dei bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako,

5.8. El tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la presencia de quienes ejerzan la presidencia y la secretaría, y de la mitad al menos de sus integrantes, según lo dispuesto en el artículo 26 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

5.9. El tribunal podrá requerir los asesoramientos que estime necesarios para cualquiera de las pruebas de que consta el proceso selectivo, que se limitarán a la colaboración técnica en la respectiva especialidad.

5.10. Al amparo de lo establecido en el artículo 19.1 del Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, el tribunal queda facultado para efectuar las adaptaciones de tiempo y medios que hayan sido solicitadas por las personas que opten a las plazas convocadas y que presenten alguna discapacidad.

5.11. El tribunal no podrá declarar seleccionado un número mayor de aspirantes que el de plazas convocadas. Serán nulas de pleno derecho las propuestas que infrinjan tal limitación.

5.12. Las resoluciones del tribunal serán vinculantes para el órgano al que competan los nombramientos, sin perjuicio de que este pueda proceder a su revisión conforme a las normas reguladoras del procedimiento administrativo.

5.13. A los efectos de comunicaciones y demás incidencias, el tribunal tendrá su sede en el Parlamento Vasco.

### 6. Procedimiento de selección

6.1. La selección de quienes opten a la plaza se llevará a cabo mediante el sistema de concurso-oposición. La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio, y consistirá en la valoración de los méritos aducidos y acreditados por quienes opten a las plazas, conforme al baremo que se establece en el anexo 1 de la presente convocatoria. La fase de oposición consistirá en la realización de los ejercicios que igualmente se detallan en dicho anexo.

6.2. La fecha, hora y lugar de celebración del primer ejercicio se publicará en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco con una antelación de, al menos, cinco días. Esta publicación podrá sustituirse por notificación personal y fehaciente a quienes opten a las plazas, en idéntico plazo. Los sucesivos anuncios de celebración de los restantes ejercicios se harán públicos en el tablón de anuncios del Parlamento Vasco y en la dirección de Internet www.parlamento.euskadi.net, con una antelación de, al menos, cuarenta y ocho horas.

6.3. Se realizará un único llamamiento para cada ejercicio a quienes opten a las plazas convoca-

eta ariketara ez agertzea prozesutik kanpora uzteko arrazoi nahikoa izango da, non eta ezinbesteko arrazoiren bat izaten ez den. Arrazoi hori behar bezala egiaztatuko da eta epaimahaiak askatasunez erabakiko du aintzat hartu ala ez.

6.4. Ariketa bat amaitzen denetik hurrengoa hasi arte, hirurogeita hamabi ordu igaro beharko dute gutxienez, eta inoiz ere ez berrogeita bost egun natural baino gehiago. Hori horrela izanik ere, epaimahaiak ahalmena izango du, egoki irizten badio, ekitaldi berean ariketa bat baino gehiago jartzeko. Kasu horretan ere hirurogeita hamabi ordu lehenago eman beharko du horren berri.

6.5. Deialdiko plazak lortu nahi dituzten pertsonek aukeran izango dute probak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egitea, non ez den egiaztatzen ariketaren bat euskaraz egitea teknikoki ezinezkoa dela. Eskabide-orrian espresuki adierazi beharko da aukeratutako hizkuntza.

Hala ere, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duten plazetan, deialdiko lanpostuaren betekizunak eskatutako hizkuntza-eskakizunaren mailaren arabera burutzeko gaitasuna egiaztatzeko euskarazko probak jarri ahal izango dira.

6.6. Oposizioko proben eta ariketen kalifikazioak eta lehiaketan emaniko puntuazioak argitara emango dira bai Eusko Legebiltzarreko iragarki-taulan bai www.parlamento.euskadi.net web-orrian. Zernahi gisaz, epaimahaiak, egoki iritziz gero, beste era batera ere jakinarazi ahal izango ditu.

6.7. Hiru egun baliodunneko epea izango da gehienez, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen denetik kontatzen hasita, egindako azterketak berrikustea eskatzeko edo kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Horretaz gain, epaimahaiaren jarduna inpugnatzeari buruzko 10.2 oinarrian ezarritakoa ere balia daiteke.

6.8. Oposizioko guztizko puntuazioa aldi hori osatzen duten ariketetan lorturikoen batura izango da, eta hautaketa-prozesukoa, berriz, oposizioan eta lehiaketan lorturikoena. Lehiatzaileen lehentasun-ordena puntuazio horien arabera zehaztuko da.

6.9. Probak zuzentzerakoan, ahal denean, deialdiko plazak lortu nahi dituzten pertsonen anonimatua bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu epaimahaiak.

das. Incurrirán en causa de exclusión del proceso quienes no comparezcan, salvo concurrencia de causa de fuerza mayor, que será debidamente justificada y libremente apreciada por el tribunal.

6.4. Desde la terminación de un ejercicio y hasta el comienzo del siguiente deberá transcurrir un plazo mínimo de setenta y dos horas, sin que en ningún caso pueda exceder de cuarenta y cinco días naturales. Ello no obstante, y si así lo estima conveniente, el tribunal podrá disponer la celebración simultánea de varios ejercicios en una misma sesión, en cuyo caso deberá hacerlo público con la misma antelación de setenta y dos horas.

6.5. Las pruebas selectivas podrán realizarse, a elección de las personas que opten a las plazas convocadas, en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma, salvo que se acredite la imposibilidad técnica de realización de algún ejercicio en euskera. La opción elegida deberá consignarse expresamente en la solicitud.

No obstante, para plazas con perfil lingüístico preceptivo podrá haber pruebas en euskera que acrediten la capacidad para realizar funciones del puesto en consonancia con el perfil lingüístico exigido en la convocatoria.

6.6. Las calificaciones de las distintas pruebas y ejercicios de la fase de oposición y puntuaciones otorgadas en el concurso se publicarán en el tablón de anuncios del Parlamento Vasco y en la página web, www.parlamento.euskadi.net, sin perjuicio de cualquier otra forma de publicidad que juzgue conveniente el tribunal.

6.7. Se establecerá un plazo máximo de tres días hábiles, contados desde la fecha de publicación de la resolución del tribunal, para solicitar la revisión de exámenes realizados o para presentar reclamaciones sobre calificaciones de los mismos. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en la base número 10.2 sobre impugnación de la actuación del tribunal.

6.8. La puntuación total de la fase de oposición será la suma de las obtenidas en los ejercicios que la forman. La puntuación total del proceso selectivo será la suma de las puntuaciones obtenidas en las fases de oposición y concurso, y determinará el orden de prelación de quienes optan a la plaza.

6.9. El tribunal adoptará las medidas necesarias para garantizar, cuando sea posible, el anonimato de las personas que opten a las plazas convocadas en la corrección de las pruebas.

6.10. Nahitaezkotasun-data igaroa duten lanpostuak, ezarrita dauden hizkuntza-eskakizunak betetzen dituzten pertsonekin bete beharko dira.

6.11. Hizkuntza-eskakizunak, nahitaezkoa ez den bitartean, euskaraz jakiteari meritu gisa zenbat puntu eman behar zaion erabakitzeko baino ez du balioko.

6.12. Deialdiko plazek lanpostu-zerrendan nahitaezko eskakizuna baldin badute, egiaztatu egin beharko da eskakizun hori, HAEEk denboran gertuen egingo dituen deialdi bateratuetan, dagokion proba egiteko asmoa eskabidean agertu duten lehiatzaileei aldez aurretik iragarriko zaien egunean. Horretarako berariazko probak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan aurreikusitakoei lotuz burutuko dira.

6.13. Aurreko paragrafoan aipaturiko probetatik salbuetsirik egongo dira eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenak, euskal administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko indarrean dauden arauei jarraituz, eta euskarako tituluen eta ezagutza-ziurtagirien baliokidetzarako indarrean dagoen arautegiaren arabera.

Lehiatzailea titulu horietako baten jabe dela zehazki eta agiri bidez frogatzeko, 3.4 oinarrian adierazi bezala jokatuko da.

Aurreko paragrafoan aipatu diren probak egiteko iragarki berean, paragrafo honen arabera hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten lehiatzaileen zerrenda emango du argitara epaimahaiak.

## 7. Hautatuen zerrenda

7.1. Lehiaketaren balorazioa eta oposizioa osatzen duten ariketen kalifikazioa amaiturik, epaimahaiak sailkapen-ordena erabakiko du, lorturiko puntuazioaren arabera. Sailkapen-ordena horrek hautaketa-prozesuan lehiatu diren eta probak gainditu dituzten guztiak bilduko ditu.

7.2. Puntuazio-berdinketarik izanez gero, oposizioko ariketa nahitaezkoen eta kanporagarrien multzoan puntuazio handiena lortu duena gailenduko da.

6.10. La cobertura de puestos de trabajo con fecha de preceptividad vencida se deberá realizar con personas que cumplan los perfiles lingüísticos establecidos.

6.11. En tanto el perfil lingüístico no sea preceptivo, servirá exclusivamente para determinar la valoración que como mérito habrá de otorgarse al conocimiento del euskera.

6.12. La acreditación del perfil lingüístico exigible para la provisión de las vacantes convocadas con tal preceptividad de acuerdo con la relación de puestos de trabajo se llevará a cabo en el seno de las convocatorias unificadas más próximas en el tiempo realizadas por el IVAP, que se anunciarán oportunamente a quienes opten a la plaza y hayan manifestado en la solicitud su intención de realizar la correspondiente prueba Las pruebas específicas destinadas a tal fin se llevarán a cabo conforme a las previsiones contenidas en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y el Decreto 86/1997, de 15 de abril.

6.13. No deberán realizar las pruebas a las que se refiere el apartado anterior quienes hayan acreditado el perfil lingüístico requerido de acuerdo con lo previsto en las normas vigentes para la aplicación del proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas vascas, y según la normativa en vigor de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimiento de euskera.

La justificación documental precisa de hallarse en posesión de alguna de tales titulaciones se llevará a cabo en la forma prevista en la base 3.4.

El tribunal hará pública, en el mismo anuncio de celebración de las pruebas a que se refiere el apartado anterior, la relación de quienes opten a las plazas y tengan ya acreditado el perfil lingüístico conforme a lo previsto en el presente apartado.

## 7. Relación de personas seleccionadas

7.1. Concluida la calificación de los ejercicios que integran la fase de oposición y la valoración de la fase de concurso, el tribunal establecerá en cada caso un orden de clasificación de acuerdo con la puntuación alcanzada. La clasificación incluirá a la totalidad de quienes, concurriendo al proceso selectivo, hayan superado las pruebas.

7.2. Los empates de puntuación se dirimirán a favor de quien haya obtenido la mayor puntuación en el conjunto de los ejercicios obligatorios y eliminatorios de la fase de oposición.

Puntuazio bera lortuz gero, emakumezkoei emango zaie lehentasuna Legebiltzarreko Administrazioko kidegoetan, kidego horietan emakumezkoak % 40 baino gutxiago direnean, salbu eta lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu —nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik—, kasurako, laneratzeko edo lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

En caso de idéntica puntuación, se dará prioridad a las mujeres en aquellos cuerpos de la Administración parlamentaria en los que la representación de estas sea inferior al 40 %, salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo.

7.3. Behin betiko sailkapen-ordenak eta hautatutako lehiatzaileen zerrenda argitara emango dira bai Eusko Legebiltzarreko iragarki-oholean bai www.parlamento.euskadi.net web-orrian. Epaimahaiak hautatutako horiek praktiketako funtzionario izendatzea proposatuko du, 1990eko ekainaren 22ko Langileen Estatutu eta Legebiltzarreko Administrazioaren Araubide Juridikoaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak oposizioa gainditu dutenen zerrenda eta epaimahaiak egindako izendapen-proposamena Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakiko du.

7.3. El orden definitivo de clasificación y la lista de personas seleccionadas se harán públicos en el tablón de anuncios del Parlamento Vasco y en la página web www.parlamento.euskadi.net. El tribunal elevará la propuesta de nombramiento en prácticas, de conformidad con lo establecido en el artículo 24 del Estatuto de Personal y Régimen Jurídico de la Administración Parlamentaria, de 22 de junio de 1990. La Mesa del Parlamento Vasco acordará la publicación de la relación de aprobadas y aprobados, así como la propuesta de nombramiento efectuada por el tribunal, en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

## 8. Izendatzea

8.1. Praktiketako funtzionario izendatu aurretik, parte hartzeko eskaturiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztuko dituzte hautatu diren lehiatzaileek Eusko Legebiltzarreko Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzan. Hamabost egun naturaleko epea izango dute horretarako, 7.3 paragrafoan aipaturiko zerrenda Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hona hemen aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Zinpeko deklarazioa edo agintza, ezein administrazio publikoren zerbitzutik diziplina-espediente bidez ez dituztela kendu eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez daudela aitortuz, eta orobat Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean aurreikusitako inolako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela ere.

b) Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua, edo titulu hori eskuratzeko eskubideen ordainagiria. Zuzenbidean onarturiko beste edozein era ere bidezko izanik, aipaturiko fotokopia Eusko Legebiltzarreko Antolaketa eta Giza Baliabiden Zuzendaritzak konpultsatu ahal izango du. Halaber, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen agiria edo adierazitako merituak ere konpultsatu egin beharko dira baldin eta

## 8. Nombramiento

8.1. Previamente a su nombramiento en prácticas, las personas que hubieran resultado seleccionadas presentarán en la Dirección de Organización y Recursos Humanos del Parlamento Vasco, en el plazo máximo de quince días naturales contado a partir del siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco de la relación a la que se refiere el apartado 7.3, los documentos acreditativos de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria, que a continuación se detallan:

a) Declaración jurada o promesa de no estar separada o separado por causa de expediente disciplinario del servicio de ninguna administración pública, ni hallarse inhabilitada o inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas, así como de no incurrir en ninguna de las causas legales de incapacidad o incompatibilidad previstas en la Ley 53/1984, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas.

b) Fotocopia compulsada del título exigido para tomar parte en la convocatoria, o certificación que acredite haber satisfecho los derechos para su obtención. Sin perjuicio de cualesquiera otros medios admitidos en derecho, dicha compulsa podrá ser efectuada por la Dirección de Organización y Recursos Humanos del Parlamento Vasco. Asimismo, procederá la compulsa del documento acreditativo del perfil lingüístico o de los méritos ale-

eskabideak aurkezteko aldian horien fotokopia soila aurkeztu bazen.

c) Medikuaren ziurtagiri ofiziala, dagozkien egitekoak normal betetzea eragotziko dien eritasunik nahiz akats fisiko edo psikikorik ez dutela egiaztatzen duena.

d) Ahalmen-urrituentzat gordetako txandan parte hartu badute, organo eskudunaren ziurtagiria, % 33ko edo gehiagoko ahalmen-urritasuna dutela egiaztatzen duena.

8.2. Lehendik funtzionarioak direnak salbuetsirik egongo dira aurreko izendapena lortzeko egiaztaturiko baldintzak eta betekizunak justifikatzetik. Aski dute aurkeztea dagokien administrazioak emaniko ziurtagiria, haien egoera eta espedientean pertsonalean adierazten diren gainerako inguruabarrak egiaztatzen dituena.

8.3. Ezingo dira izendatu aipaturiko dokumentuak aurkeztu beharreko epearen barruan aurkezten ez dituztenak, ezinbesteko arrazoiren bat izan ez bada behintzat, ezta aurkezturiko dokumentuek erakusten dutenaren arabera bigarren oinarriko baldintzaren bat betetzen ez dutenak ere. Horrenbestez, lehiatzaile horiei dagokienez, jarduketa guztiak anulaturik eta eraginik gabe geldituko dira, eta izendapenerako zituzketen eskubide guztiak galduta. Halakoetan, dagokion sailkapen-ordenan ezarritako lehentasunari jarraituz eta deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatu ondoren, aurreko anulazio horren ondorioz deialdiko lanpostukopuruaren barruan sartzerik duen lehiatzaileak jasoko du izendapena, betiere 7.3 oinarrian adierazitako irizpideak betez.

## 9. Ebazpena

9.1. Dokumentuak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren erabakiaren bidez, hautatuak praktiketako funtzionario izendatuko dira karrerako funtzionario bihurtu aurretik. Erabaki hori Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Izendapen hori jasotzen dutenek gehienez hamabost egun balioduneko epearen barruan jabetu beharko dute lanpostuaz, izendapen-ebazpena Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori beste hamar egun luza daiteke, izendapena jaso duenak eskatzen baldin badu eta horretarako arrazoi frogaturik egonez gero.

gados, en el supuesto de que en la fase de presentación de solicitudes se hubiera aportado fotocopia simple de los mismos.

c) Certificado médico oficial acreditativo de no padecer enfermedad ni defecto físico o psíquico que impida el normal desempeño de las correspondientes funciones.

d) Certificado del órgano competente que acredite la minusvalía con grado de discapacidad igual o superior al 33 %, en el caso de que hubieran participado por el turno reservado a personas discapacitadas.

8.2. Quienes tengan la condición de funcionarias o funcionarios estarán exentos de justificar las condiciones y requisitos acreditados para obtener su anterior nombramiento, debiendo presentar únicamente certificación de la administración de la que dependen acreditando su condición y demás circunstancias que consten en su expediente personal.

8.3. Quienes dentro del plazo indicado, y salvo causa de fuerza mayor, no presentasen la referida documentación, o del examen de la misma se dedujera que carecen de alguno de los requisitos señalados en la base 2, no podrán recibir el nombramiento, quedando anuladas y sin efecto todas las actuaciones, con la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirles para su nombramiento. En tal caso, siguiendo la prelación establecida en el correspondiente orden de clasificación y previa acreditación de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria, el nombramiento recaerá, como consecuencia de la referida anulación, en quien tuviera cabida en el número de plazas convocadas, observándose en todo caso los criterios señalados en la base 7.3.

## 9. Resolución

9.1. Finalizado el plazo de presentación de documentos, se conferirá el nombramiento en prácticas previo a su acceso a la condición de funcionaria o funcionario de carrera, mediante acuerdo de la Mesa del Parlamento Vasco, que se publicará en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

9.2. Quienes reciban este nombramiento deberán tomar posesión en el plazo máximo de quince días hábiles, contados desde la fecha de publicación de la resolución de nombramiento en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco. Dicho plazo podrá prorrogarse diez días, a petición de quien haya recibido el nombramiento y siempre que concurra causa justificada para ello.

9.3. Ezarritako epearen barruan lanpostuaz jabetzen ez direnek besterik gabe galduko dute beren eskubidea. Halakoetan, 8.3 oinarrian adierazi bezala jokatuko da.

## 10. Azken arauak

